


**ehbildu**

|   |  |
|---|--|
|  <b>EUSKO LEGEBILTZARRA</b><br><b>PARLAMENTO VASCO</b><br><b>ERREGISTRO OROKORRA</b><br><b>REGISTRO GENERAL</b> |  |
| <b>2019 EKA: 21</b><br><b>JUN: 21</b>   |  |
| <b>SARRERA/</b><br><b>ENTRADA</b>   | <b>3471</b> <b>ISTEERA/</b><br><b>SALIDA</b> |

## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen erregelamenduaren babesean 13/1988 legea, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoa, aldatzeko ondorengo **LEGE PROPOSAMENA** aurkezten du.

### ZIOA

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, onartu zuen Pertsona orok duela hezkuntza eskubidea. Eta Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

Halaber, Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du.

Alta, aipaturiko oinarrizko aldarrikapenaren garapenerako tresna demokratiko eta parte hartzaileak, Eskola Kontseilua gisakoak, egikaritzea ezinbesteko berme bilakatzen dira pertsonen eskubide norbanako eta kolektiboak ziurtatzerako garaian.

2018ko ekainaren 28an onarturiko, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko legeak 1988ko legea aldatzen badu ere, aldaketa oso mugatua eta testimoniala dela esan daiteke, soilik Euskadiko Eskola Kontseiluaren eta Lurraldeko Kontseiluen partaidetzara mugatzen dena eta genero ikuspegitik legea zuzentzen duena. Lege

proposamenaren eztabaidan legea zaharkitua zegoela agerian geratu bazen ere; ondorengo eguneroko jardueran behin eta berriro nabarmen geratu da 2018ko ekainean onarturiko legean jasotako aldaketekin, markoa guztiz mugatua geratu dela beste behin, eta ez diola erantzuten gaur egungo errealitateari, are gutxiago momentu honetan eta bereziki etorkizunera begira gizarte gisa ditugun erronkei erantzuteko hezkuntza eremuak behar dituen eraldaketak bideratzeko, hezkuntza komunitatearen parte hartze eta elkarlana garatzeko beharrezkoak diren espazio eta bitartekoei bide emateko.

Beraz, funtsezkoa deritzogu gaiak eskatzen duen sakontasunarekin eztabaida irekitzea. Hezkuntzan parte hartzearen kultura demokratikoaren sustapenaren bidez, elkarlana garatzeko espazio eta tresnak hezkuntza komunitatearen eskuetan jartzeko maila desberdinetan, herrietatik hasiaz Erkidego mailarainokoak, atek irekiaz ere muga administratiboez gaindiko lanari.

Halaber, jakinda eraldaketa momentuan gaudela, etorri beharko diren aldaketak kultura demokratiko sakonago batetik aurre egiteko, parte hartze, elkarrizketa eta negoziazioa oinarri izanda determinantea izan daiteke Eskola Kontseiluek eta Euskadiko Eskola Kontseiluak joka dezaketen papera erakunde eta herritar eta hezkuntza komunitatearen arteko uztarketa, koordinazio eta bateratze lana egiteko. Guztiz baliagarria, eraginkorra bilaka daiteke garai berriei egokituriko Euskadiko Eskola Kontseiluen lege berregokitu bat.

Guzti horregatik, beharrezkoa da eztabaida berriro mahai gaineratzea, uneak ematen digun aukera probesteko, 1988ko legearen birmoldaketa sakona eginez, 2018ko legearekin uztartuz, etorkizunera begirako marko juridiko berritua egikaritzeko.

Hau dela eta, 1988an birmoldatutako lege baten aldaketa batez ari gara eta ordutik hamarkadak iragan direnez, hezkuntza ikuspegitik soilik begiratuta ere, alegia,

erabiltzen den hizkuntza eta terminoei erreparatuta ere, oso nabarmen geratzen da Euskadiko Eskola Kontseiluak arautzen dituen legearen azterketa eta eguneratze sakon baten beharra. Agerian geratzen da ere, gaur egungo Hezkuntza sistemaren egoera ordutik gaurdaino aldatzen joan dela eta ondorioz Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzio, parte hartze eta izaeraren inguruan badela garaia azterketa bat eginez, berritze bat egiteko eta garai berriei egokitu al izateko; izan ere orain arte garaiak aldatu dira eta egoera aldatu da, baina Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzionamendua ez da aldatu eta ez du aldatzeko tarterik, marko juridikoak ez baitio horretarako aukerarik ematen.

Ondorioz, planteaturiko lege aldaketa proposamenak parada ematen digu guztion artean errebisio bat egiteko eta ondoren atera genitzakeen ondorioen arabera gehiengoak egokien ikus ditzakeen aldaketak planteatzeko; guztiontzat hain tresna garrantzitsua den Euskadiko Eskola Kontseiluaren ezaugarritze eta funtzionamendua garai berrietara egokituz. Ezin dugu aukera galtzen utzi, beste behin.

Arestian aipatutako guztiagatik, aurkezten dugun lege proposamenean, 13/1988 legea hobetzera bideratuak dauden edukiak jasotzen saiatu gara. Euskadiko Eskola Kontseilua inoiz baino beharrezkoagoa dugulako garai berri hauetan esku artean ditugun erronka konplexuen aurrean desberdinen arteko erantzun partekatu eta adostuak erdiesteko. Horregatik, 13/1988ko hainbat artikulua hobetzeko proposamena egiten dugu. Errespetatuz 3/2018ko legean eginiko aldaketak; artikulua horien eztabaidara sartu gabe. Halaber, mahai gaineratu nahiko genuke ere, indarrean den legeak hizkuntza juridiko zein hezkuntza hizkuntza ikuspegitik ere eguneratze bat beharrezkoa duela.

Honengatik, guztiarengatik, ondorengo **LEGE PROPOSAMENA** aurkezten dugu:

## **LEHENENGO ARTIKULUA**

### **3. artikuluari gehitzen zaio:**

- i) Gizartearen aniztasuna balorean jarri eta inklusioa bermatzea
- j) Pertsonen aukera berdintasuna bermatzea
- k) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren kalitatea eta ekitatea bermatzea.
- l) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren autonomia bermatzea.
- m) Legeak adierazitako euskarazko hizkuntza gaitasuna bermatzen dela ziurtatzea.
- n) Euskal kulturaren eta historiaren transmisioa bermatzea.

## **BIGARREN ARTIKULUA**

### **4. artikuluari gehitzen zaio:**

- j) Hezkuntzara sarbidea berdintasunean bermatuko duten baldintzak zehaztea.
- k) Hezkuntza proiektuen kalitatezko garapenerako ikastetxeetako ekipoen ezaugarritze, egokitzapen eta trebakuntza komunitateko eta ingurumeneko errealitateari lotuta.
- l) Aniztasunaren trataera inklusiborako irizpide eta baldintzak zehaztea.

## HIRUGARREN ARTIKULUA

### 7. artikuluari gehitzen zaio:

Halaber, ekimena har dezake unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren erronken inguruan proposamenak egiteko Eusko jaurlaritzari zein oro har Hezkuntza Komunitateko eragile desberdinei.

Horrez gain, Euskadiko -Kontseiluak bere funtzioen artean izango du, Hezkuntza Komunitatearen interes eta beharrei loturiko eztabaidak sustatzea eta euskal gizartearen erronkei atxikirik Hezkuntza -Sistemaren berrikuntza xede izango duten proiektuak bultzatu eta zabaltzea.

## LAUGARREN ARTIKULUA

### 9. artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:

Lehendakaria, Legebiltzarrak proposatu eta izendatuko du Hezkuntza Komunitateko prestigio aitortua duen kideen artetik bere ezagutza, esperientzia eta ibilbidea kontutan hartuaz. . Kargu hori hutsik, edo Lehendakaria kanpoan edo gaixorik izatea gertatuz gerokotarako, horren ordezkotza egingo duen Lehendakariordea ere izendatuko du eta Lehendakariak esku eman diezazkion ahalmenak izango ditu. .

## BOSTGARREN ARTIKULUA

### 12. artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:

Euskadiko Eskola-Kontseiluko kideak, 10 atalean aipatzen diren saloak, hala behar izanez gero, jaso ondoren, Hezkuntza Sailburuak izendatuko ditu, Legebiltzarrak izendatu beharreko kideen salbuespenarekin.

## SEIGARREN ARTIKULUA

### 14. artikuluari gehitzen:

l) Gizartearen hezkuntza ereduaren ezaugarritzeaz eztabaida parte hartzaileak irekitzea, oinarrizko adostasunak errazteko.

m) Hezkuntza sistema gizartearen eboluzioarekin batera garatu dadin, erronkei erantzuteko berrikuntza, jakintza eta ikerketa aplikatuaren sustatze, zabalkunde eta ezarpenerako.

n) Aniztasunaren trataera inklusiborako proiektu, neurrien ezarpenerako.

ñ) Kalitatearen hobekuntzarako adierazle, sistemen jarraipena.

o) *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren autonomiaren inguruan.*

p) *Legeak adierazitako euskarazko hizkuntza gaitasuna bermatzen dela ziurtatzearen inguruan.*

q) *Euskal kulturaren eta historiaren transmisioaren inguruan.*

## ZAZPIGARREN ARTIKULUA

### 16. artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:

Euskadiko Eskola-Kontseiluak, urteoro, bere ekintzei buruzko altzinak emaneko txostena eta irakaskuntzaren Euskadiko Autonomi Elkarteango egoeraren argipide-txostena egin beharko du. Txostenaren adierazleak Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakiko ditu. Behin Jaurlaritzari txostena aurkeztu ostean jarraipena eginez, emaniko aholkuen betetze mailaren inguruan, horretarako urtero ebaluazio txostena egingo da.

## ZORTZIGARREN ARTIKULUA

### 17. artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:

Euskadiko Eskola-Kontseiluak arauzko Osoko bilkura, euskal hezkuntza-moduaren egoerari buruzko urtean-urteko txostena onartzeko, urtean behin egingo du, baita Lege honekin bat etorritik arauzko argipideak eman behar ditzan edo bere agintepeko gaiari buruzkoan Hezkuntza Sailak iritzirik eska deiezaion guztietan ere. Bertako kideen herenak eska dezan guztietan ere bilduko da. Bere eginbeharretarako beharrezkoak dituen batzordeak osatu behar adina aldiz batuko ditu, lege horrek aitorturiko funtzioak betetzeko.

## **BEDERATZIGARREN ARTIKULUA**

### **18. artikuluari 18.a atala gehitzen zaio:**

**18.a. atala.** Gure herriaren lurralde-artikulazioa laguntzeko marko europarrak elkarlanerako eskaintzen dituen mugaz gaindiko mekanismoak baliatuko dira eta eguneroko dinamikan txertatuko dira.

Horrez gain, Nafarroako Eskola Kontseiluarekin zein Ipar EHkoarekin batzorde berezi bat sortuko da, hizkuntza, kultura zein komunean ditugun ezaugarrien lanketarako zein komenigarriak izan daitezkeenerako elkarren esperientzia eta ezagutza partekatuz. Baztertu gabe, gainerako lurraldeetako eskola kontseiluekin elkarlana.

## **HAMARGARREN ARTIKULUA**

### **20. artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:**

**20.atala.** Lehendakariak eta Lehendakariordeak, Euskadiko Eskola Kontseiluaren saloz, Kontseilu bakoitzeko kideen artetik, Hezkuntza Sailburuak aukeratuko ditu.

## **HAMAIKAGARREN ARTIKULUA**

### **27.2 artikulua aldatzen da eta horrela gelditzen da:**

Bere dirubideak herri-dirutatikoak izanezko bi ikastetxe gutxienez dauden udaletan, udal-mailako eskola-kontseilua eratuko da. Gainontzekoetan nahi bada kendu.



## HAMABIGARREN ARTIKULUA

### ERABAKI OROKORRA artikuluari gehitzen zaio:

6.- Euskadiko Eskola Kontseiluaren erabaki lotesle guztiak Osoko Bilkuran hartuko dira, hala nola, Hezkuntza Sailari (edo bestelako sail edo erakunderi) bidali beharreko irizpenak Osoko Bilkuran bozkatuko dira. Osoko Bilkuran gehiengoarekin bat egiten ez duen iritzirik boto partikular gisa jasotzeko aukera egongo da.

7.- Kontseiluaren egunerako jarduerarako beharrezkoak diren erabakiak Batzorde Iraunkorrak hartuko ditu, beti ere, Osoko Bilkurak hartu beharreko erabakiak ez diren heinean.

Gasteizen, 2019ko ekainaren 21ean

  
Rebeca Ubera Aranzeta

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea